- **Mintzamen-probaren grabazioa entzutea**

Mezu elektronikoa bidali behar duzu j-uskola@ivap.eus helbidera, zure datuak eta telefono-zenbakia jarrita. Mintzamen-saioak bikoteka grabatzen direnez, ezin izango dizugu kopiarik bidali. Beraz, IVAPeko Lakuako egoitzara etorri beharko duzu **2025eko urtarrilaren 7an** zure saioa entzutera. Urtarrilaren 3an, eguerdi aldera, mezu elektronikoz jakinaraziko dizugu, zein ordutan etorri beharko duzun **urtarrilaren 7an**. Mintzamen-proba entzuteko eskaerak egiteko epea **abenduaren 27tik 28ra** izango da, biak barne, **ez da onartuko epe horren aurretik edo epe horren ostean egindako eskaerarik**. Mintzamen-proba entzutera etortzen zarenean, konfidentzialtasun konpromisoaren inguruko dokumentu bat sinatu beharko duzu.